TUTORIALA · LANGILEEN ATARIA

Aktibatu zure borondatezko ekarpenak nominaren bidez 3 urratsetan


UPV/EHUn lan egiten baduzu, borondatezko ekarpenak egin ditzakezu Itzarri Enpleguko BGAEra, zuzenean zure nominatik. Horretarako, langileen intranetean / atarian eskaera bat egin behar duzu.

1. Sakatu «Itzarri»
2. Berrikusi datak eta egin eskaria
3. Sakatu «Onartu»

1 1. URRATSA — Sartu Itzarri atalera

Langileen Atarian, **Nire datu ekonomikoak** atalaren behealdean, sakatu **Itzarri**.

Langileen Ataria › Nire datu ekonomikoak › Itzarri



2. URRATSA


Berrikusi datak eta egin eskaria

i Berrikusi **antzinatasuneko bi urteak betetzen dituzun data**; data horretatik aurrera egin ahal izango dituzu ekarpenak.


ii **Borondatezko ekarpena egiteko edo eteteko eskaria** atalean, sistemak automatikoki beteko du borondatezko ekarpenaren **hasiera-data** (normalean, eskaera egin ondorengo hilabeteko lehen eguna).

1 Ondoren, sakatu behealdeko **Borondatezko ekarpena nominaren bidez eskaria** esteka.


> ⓘ **Ekarpenaren zenbatekoa:** UPV/EHUk zure alde egiten duen ekarpenaren kopuru bera eta maiztasun bera (hilero) kenduko dizu nominatik. Ezin duzu zuk zenbatekoa aukeratu.



2.1 Esteka **urdinez** ageri da. Sagua gainetik pasatzean, erakuslea esku bihurtzen da, esteka bat dela adierazteko.



2.2 Orduan, estekaren testua **gorriz** jartzen da. Sakatu esteka hori, nominaren bidezko borondatezko ekarpenaren eskaera egiteko.




3 3. URRATSA Berretsi eskaera

Itzarri Enpleguko BGAEra nominaren bidez borondatezko ekarpenak egiteko eskaera osatzeko, sakatu **«Onartu»** («Aceptar») botoia.



Eskaera bete ondoren, sistemak jakinaraziko dizu eskaera **behar bezala prozesatu** dela.



OHAR GARRANTZITSUA

2. urratsean **«Borondatezko ekarpena nominaren bidez eskaria»** esteka eta 3. urratsean **«Onartu»** botoia sakatu ondoren, **ezin da atzera egin eskaera horretan**. Borondatezko ekarpena **ezeztatzeko** eska dezakezu, baina ezeztapen hori **hurrengo hilean** jarriko da indarrean. Hau da, eskaera onartu ondoren, nahiz eta gero ezeztatzeko eskatu, sistemak borondatezko ekarpen bat egingo du.

Eginda! Zure eskaera erregistratuta geratu da

Hasiera-datatik aurrera, Itzarrira egiten dituzun borondatezko ekarpenak zuzenean zure nominatik egingo dira.